

# Arrasate

1999ko  
Otsailak 19  
440. zenb.

SHARPA



## Leihatze prest

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: RAMON JAUREGI  
KULTURA ELKARRIZKETA: LOURDES BEDIA • KIROL GAIA: TXIRRINDULARITZA

Pixkanaka-pixkanaka  
gauza asko ezagutzen ari zara berarekin batera.

Hazten ikusten duzu  
eta lagundu nahi diozu.  
Ez dakiola hain zaila egin.  
Bere lekua beharko du,  
bere asmoak izango ditu,  
bere logela...

**Eta altzari berriak behar izango ditu, ez?**



Zuk nahi duzun finantziazioa, nahi bezala  
ordain dezazun: 24 hilabetean interesik  
barik edo 6 hilabetean, baina momentuan  
ordaintzerakoan daukazun beherapen  
berarekin ordain dezakezu. Zeuk erabaki.

**TODO Mueble** **Kabia**  
DARIA ONA

Gipuzkoa Etorbidea, 28 • Tel. 943 79 27 70 • **ARRASATE**

ORDUTEGIA: 10:15etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Larunbatak barne.

# Inauteriak

Inauteriak iritsi dira berriz ere gure herri eta hirietara. Neguko solstizioaren amaiera iragartzen dute eta eromena eta kolorea ekarri dute Euskal Herriko kale askotara. Esan behar da, halere, ospakizun oso ezberdinak egiten direla landa ala hiri giroan; eta esan beharrik ez dago, inauteri tradizionala oso osorik nekarizatzako gune batzuetan baino ez dela gordetzen. Herri txikietan urtero ikuskizun berdina, jantzi zahar eta baldarrak, musika eta dantza autoktonoak eta herritarren arteko giro bateratua aurki ditzakegu. Hirietan, berriz, urtero ikuskizun ezberdinak, jantzi sofistikuak eta musika eta dantza askotarikoak ditugu; hiritarrok, hein handi batean, ikusle soil bihurtu gara, modernitatearen eta tradizioaren begirale pasibo.

Izan ere, Arrasaten, adibidez, ez dugu ia modernitaterik, eta tradiziorik ere



Karmele Perez

**“Debekuen gainetik irau-  
dute eta herritarron  
gozamina dute helburu”**

ez. Horiek ikustera kanpora atera behar dugu.

Baina zer dira inauteriak? Gaur egun bizi dugun kristau kulturaren, garizumaren iragarle dira, nahiz eta askori garizumak ezer gutxi esan honezkerok. Baina elizak gizartean eragin handia zuen garaian, garizuma garaiko penitentziak gogorak izaten ziren eta horregatik garizuma aurreko aldia, arau

eta gizalegeen gainetik ospatzen zen: haragikeria eta arauen urratzea ziren nagusi. Hortik datoz *haratuzteak*, *karnabalak* edo *karnestolendak* izenak. Gizonak emakume, pobreak aberats, gizakiak animalia bihurtzen ziren aldia zen. Baina, zalantzarik gabe, ospakizun horietan kristautasuna baino lehenagoko ospakizun zaharrak nahasten ziren.

*Inauteri* edo *ihauteri* hitzak, adar mozketarekin izan dezake zerikusia, inausi aditzarekin hain zuzen ere. Izan ere, neguko zikloaren amaiera eta udaberriko prestakuntza adierazi nahi

izango luke, zaharra kendu eta kimu berriei tokia uztea. Urbeltz ere ildo horretan mintzo da. Bere aburuz, ez litzateke izango haragiaren apologia garaia, inausketaren garaia baizik. Eta inauteriak intsektuek eragiten zituzten gaitzen aurkako konjuruak zirela dio. Hortik, behar bada, zomorro/mozorro hitzen parekotasuna: bere ustez mozorroak zomorro ziren. Arrasaten erreketarekin ematen zaie bukaera inauteriei, sardinaren erreketarekin, alegia. Batzuen ustez, 40 eguneko haragi baraualdiari aurka egiteko modua da; beste batzuen ustez, soinuen nahaste batek eragin zuen: izan ere, oinarrian haragiaren bukaera adierazi nahi zuenez, “cerdina” edo zeria erretzen zuten eta cerdina-k sardina eman omen du. Auskalo!

Usteak uste, argi dago bi inauteri mota ditugula: antzinaroari lotzen gaituena bata, ezagutzea eta ulertzea merezi duena; egungo bizimodura moldatzen dena bestea, nahiz eta sarri, hiriburuetan batez ere, handikerian erori. Gustuak gustu, batak zein besteak debeku eta denboraren gainetik irau dute eta herritarron gozamina dute helburu. Bizi bitez luzaro. ■

*“Ezagutzen dut ‘Los puentes de Madison’ filma hamasei bider ikusi duenik eta ‘Titanic’, hogeita bi aldiz”*

Jabier Etxagibel

# 650

**biltzarkidek  
hartuko dute parte  
MCCren VII Kongresuan**

Datorren maiatzaren 26 Gasteizko Europa Kongresu Jaurerian egingo den VII Kongresuan MCC taldeko 650 ordezkari hartuko dute parte. Biltzarkide bat 30 bazkideko. Dagoeneko aztertzen ari dira hantxe jorratuko den txostena.

ITURRI ONETIK

## Arrasateko plano toponimikoa

Bizpahiru aste barru Arrasateko Plano Toponimikoa aurkeztuko du Arrasateko Udalak. Herrian dauden baserri, txabola, erreka, iturri, mendi, eliza, baseliza, auzo, etxe azarnak eta bestelako toki izenak aurkitu ahal izango dira plano horretan.

Arrasateko Udalak egin du plano toponimikoa, bi iturritan oinarrituz: Arrasateko kartografia eguneratua (1998koa) eta Txipi Ormaetxearen *Arrasateko Toponimia*, 1996an Euskaltzaindiak argitaratu zuena.

*Arrasateko Euskara* liburuarekin batera aurkeztuko da, bizpahiru aste barru. Txipiren liburuarekin batera erosi ahal izango da (1.000 pta) edo bakarrik (200 pta).



**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

**Argitaratzailea:** ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otolara kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 23 88. Faxa: 943 71 23 95  
E-mail: arrasatepress@readysoft.es  
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

**Laguntzaileak:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Manjo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitateak:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo, Arentzazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 06 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaitzarin (Tel.: 943 73 02 25). **Diseinua:** Txos Azurmendi. **Asteburuetako berri-  
mailak:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre. **Kolaboratzaileak:** Mikel Inzar, Udaleko Gazteria Saila, Iker Barandiaran, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Ger-tu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Inigo Andola.



Arrasateko Udaleren  
laguntza



Gipuzkoako Foru  
Aldundaren laguntza



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura  
Sailaren laguntza

## GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala, 19**  
• Gauez eta egunez: Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 20**  
• Gauez eta egunez: Español, Iturriotz
- Igandea, 21**  
• Gauez eta egunez: Korkuera, Musakola
- Astelehena, 22**  
• Gauez eta egunez: Irizar, Erguin
- Asteartea, 23**  
• Gauez eta egunez: Amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 24**  
• Gauez eta egunez: Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 25**  
• Gauez eta egunez: Ruiz, Maala

## BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**  
Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguatorialdea ..... 943 79 05 00  
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) ..... 943 79 39 00  
(emakumeak) ..... 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11
- Gurutze Gorria**  
Bergara ..... 943 76 55 76
- DYA**  
Antzuola ..... 943 78 71 57
- Anbulatorioak**  
Arrasate (Larrialdiak) ... 943 03 53 00  
• Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria 943 03 52 50  
• Espzialitateak ..... 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea ..... 943 03 53 52  
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11  
• Fax zenbakia: 943 03 05 14  
Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
Aramaio ..... (945) 943 45 51 16
- Anbulantziak**  
Gipuzkoako ambulanziazki 943 45 87 44
- Udaltzaingoa**  
Oñati ..... 943 78 04 11  
Bergara ..... 943 77 91 06  
Arrasate ..... 943 79 14 39  
Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
Eskoriatza ..... 088
- Ertzaintza**  
Arrasate ..... 943 79 71 99
- Suhiltzaileak**  
Udal taldea ..... 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillaga Eskualde-Parkea ... 088
- Matxurak**  
Urak (udal zerbitzua) ... 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) .. 943 12 01 62  
Gasa ..... 900 40 05 23  
..... 943 79 78 44  
..... 943 79 76 78
- Garraioak**  
Taxiak ..... 943 79 12 22  
PESA ..... 902 10 12 10
- Hirugarren adinekoentzako zentruak**  
Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57
- Monterron liburategia**  
Monterron ..... 943 77 01 05
- Irratia**  
Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

## HERRIAREN BORONDATEA? GOAZEN AURRERA!

Urtarrilaren 30ean, Euskal Herriko herri eta auzo gehienetan, Euskal presoak Euskal Herriratzeko aurrerantzean eraman behar diren lan ildoak finkatzeko hausnarketa guneak izan ziren Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta. *Arrasate Presse*k, herrian izandako batzarraren berri ematerakoan, Aitor Etxabek "PP eta Gobernuak presionatu behar direla bakoitzak hobe ikusten duen moduan" esaten du, eta horrek horrela soilik idatzita nahasmendura eta gaizki ulertzea eraman dezake irakurlea.

Ondorengo lerroetan azaltzera noa Amnistiaren Aldeko Mugimenduan egin genuen analititik, laburbilduta ideia garrantzitsuenak:

Esaten nuen, besteak beste urtarrilaren 9an Bilboko Kale Agerraldi erraldoi eta plurala eta aurretik egindako lana (abenduaren 31ko udal-letxeetako karteladak...) ikusita, kezkatu ikusten genuela aldarrikapenarekin bat geunden Euskal Herriko gehienek apaltasuna eta aurka dauden PP-PSOeren inbibilismoa, Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira lelopean zabalduko espetatibak ikusita.

• Ezin genituela kale agerraldi nazionalerako mugatu gure ekimenak, are gehiago eguneroko espetxeetan bizi duten egoera ikusita. Batzarraren Almeriako espetxeko egoera ere hizpide izan zen.

• Amnistiaren Aldeko Mugimenduak beti jarri duela euskal presoak Euskal Herrira dinamika Euskal Herriak estatu espainol eta frantsesarekin duen gatazkaren konponbidetik kanpo, beti lan egin dugula legearen eta presoei dagozkien eskubideen errespetoaren aldeko esparruetan.

• Euskal Herriko alderdi politiko, sindikatu, talde herrikoiek, hitz batez Euskal Herriko gehiengoak, bat egiten duela aldarrikapen honekin. Azken hiru urteotan baita Eusko Legebiltzarrak ere.

• Azken hilabeetan bizi dugun egoerak (bereziki Euskadi Ta Askatasunaren su eten mugagabea eta Lizarragarazi akordioak) ezustean harrapatu dituela estatu espainoleko buruzagiak, eta bat-batean beraien estrategia zapaltzaile guztiak ez duela inolako zentzurik. Urteak eta urteak Espainiako hedabide gehienak (denak ez esatearren) beren interes partidisten mesederako manipulatzeko ibili eta gero oso zaila egiten zaiela aurrera pausorik edo aldaketarik egitea.

• Euskal presoak Euskal Herrira gatazkaren konponbidea lotura hori eginez Estatuak hasieran bi helburu lortzen dituela:

1. Borroka armatuaren presentziaren ikuspegitik soilik defenda zezakeen gizar-tearen gehiengoaren aldarrikapena frenatzea.
2. Denbora larregi irauten ari den gatazkan eskaile-ra faltsuak jartzea.

Halere, azkarregi emandako pausoak izanik, estatuaren inbibilismoa honek euskal presoak Euskal Herrira dinamika gatazkaren konponbide demokratikoaren erdian jartzea lortu duela eta inolako zalantzarik gabe esan dezakegula arazo hau konpontzea edo atzera pausoak emateak zalantzan jarriko zituela gatazkaren normalizaziorako gainerako ahalegin guztiak eta klabe honetan eman beharko ditugula dinamika berriak.

• Euskal presoak Euskal Herrira aldarrikapen horretan, salto kualitatibo baten beharra ikusten genuela, presoen gutxieneko bizi baldintzak errespetatu daitezkeen beharrezkoa delako eta gaur egun dagoen adostasunak kontuan hartuz gaintasun hori bada-goelako.

• PPrentz Gobernuak ez duela Euskal Herriaren borondatea errespetatzen. Presioa behar beharrezkoa dela egoera honekin bukatzeko eta ez soilik eskubidea den gai bati amaiera emateko, gatazkaren konponbiderako atek zabaldua zitelako baizik.

Presioaren beharra argi geratu delakoan, orain arte euskal presoak Euskal Herrira dinamikari adostasuna edo atxikimendua eman diezuen taldeei eta herri osoari orohar, urtarrialren 30ean hasitako gogoeta honi jarraipena eman ez eta otsailaren 6an Leioan Amnistiaren Aldeko Mugimenduak batzar orokorraren haritik jarraituz, datoren otsailaren 25ean, oste-

*Sili Sili*

**%50eko beharpenak**

Obrak direla eta, Ferrerías kaleko 28.ean gaude

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

gunez, Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 19:00etan egingo dugun batzar eztabaidara gonbidatzen zaituztegu.

Guztion ekarpenak eta parte hartzearekin euskal preso guztiak Euskal Herriratzea lortuko dugu.

*Aitor Etxabe  
Amnistiaren Aldeko  
Batzordeetako partaidea.*

## ELGEAKO "PARKE" EOLIKOAK EKOLOGIAREN IZENEAN?

**E**z gaude aurrerapenaren aurka, ezta energia eolikoaren aurka, ez diogu denari ezetza ematen. Orain arte mendizaleak oso talde apala eta ixila izan gara, nahiz eta hainbat eraso jasan behar izan ditugun gure mendietan: pistak, antenak, argi-ingar hariak, gasbideak, harrobiak... Atxarteko harrobiaren aurka bakarrik mugitu izan gara talde moduan (eta begira nolako emaitzak!). Baina, gaur egun, Zentral Eolikoena gure mendiek urte askoan jaso dezaketen erasorik larriena da.

Hau guztia enpresario batzuen poltsikoak ondo betetzeko bakarrik egiten da. Zeren eta, garbi geldi dadila, zentral eolikoek ez dute zerikusirik ekologia edo gure gizartearen energia beharren hornikuntzarekin. Zentralen bultzatzaileak ekologia beren produktua saltzeko erreminta gisa erabiltzen ari dira. "Ekologiko" etiketak bere esanahia galdu du, eta produktu bat zein

bestea saltzeko erabiltzen da kasu bakoitzean. Enpresa bultzatzaileak handiak dira eta marketing talde bat kontratatuz, komunikabideak erabiliz (azken asteetan ETBn azaldu den kanpaina adibidez) eta milioi batzuk inbertituz beren produktua lasai sal dezakete.

Horrela, gure mendietan zentral eolikoaren ezarpenak ez du zerikusirik ekologiarekin. Egia da energia eolikoak berez beste ohiko energia iturriak (nuklearra eta termikoa batez ere) baino "ekologikoagoa" dela. Baina ez gaitezen hain inozoak izan, ez ditzagun energia eolikoak eta zentral eolikoak nahas.

Edozein momentutan has daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko lehen zentral eolikoaren lanak: Elgeako zentral eolikoak, Degurixa eta Alabiatatik oso gertu. Eta produktu hori gizarteari saltzeko ondo apaindutako bi datu erabiltzen dituzte: zentral honekin 100.000 biztanlerentzako argindarra lortuko dela (hau da, Gasteizko biztanleriaren erdia), eta Elgeak urtero CO<sup>2</sup> (negutegi efektuaren eragile nagusia) 60.000 tonako jaurtiketak, eta beste 240 tona SO<sup>2</sup> (euri azidoaren sortzaile nagusia) ekidingo dituela.

Lehen puntua egia litzateke biztanle horiek beraien etxetan sartuta biziko balira, hau da, kalera irten barik eta lanik egin gabe, baina 1997. urteko datuen arabera, Euskadiko energia kontsumotik—15.790 milioi kw orduko guztira—%82 industria eta zerbitzuei dagokie eta %16 besterik ez,

etxeko kontsumoari. Hortik atera kontuak.

Bigarren puntuari dago-kionez, esan behar da "ekidin" hori egia izango dela zentral eolikoek sortzen ez duten argindarra zentral termikoetatik datorrela uste izaten bada, baina guk kontsumitzen dugunaren gehiena zentral hidroelektriko edo nuklearrek sortzen dute, errentagarriago delako adibidez Frantziak nuklearrekin sortutakoa erostea, Pasaia-ko zentral termikorako ikatza erostea baino. Ondorioz, CO<sup>2</sup> eta SO<sup>2</sup> jaurtiketak ez dira neurri horretan murriztuko.

*Besaide Mendizale  
Elkartea.*

## Banaketa arduradun berria




Hona hemen Arrasate Press aldizkariaren banaketa arduradun berria: Nahia Odriozola. Nahia Irakasle Ikasketak egiten ari da Eskoriatzan. Hemendik aurrera, ostiralero AEDn izango da arratsaldeko 16:30etatik 19:00etara, banaketa lanak koordinatzen.

## Oharra:

Pasa den astean Natalio Maiztegiren elkarrizketan Beti Ona gimnasioko irakasle zela esan genuen. Jakin izan dugu, ordea, gimnasio horretako irakaslea Gema Iñiguez dela.

## Plus Ultra taberna

Maalako Errabala, 17  
ARRASATE  
Tel. 943 79 20 57



## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

## UGARTE

Industria  
hornidurak

Arrasate pasealekua  
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00  
Faxa: 943-793412

## Arrasate

### LANAK

#### SANTA TERESAN

Santa Teresako 18, 20 eta 22 zenbakietan eta Doneztebe Portuko kalean saneamendu lanak egiten ari dira.

#### OTALORAN


Pilotalekua egiteko lanak.

#### KONTZEZIÑON

Etxeak egiteko lanak.

#### FERRERIASEN

24 eta 26 zenbakietan etxeak konpontzeko lanak segitzen dute.



**Biztanleak: 24.257**  
**Eremua: 33 Km<sup>2</sup>**  
**Garaiera: 211 metro**

## Eguraldiaren aurreikuspena




**OSTIRALA 19**

Tarteka lainoak izango ditugu eta lanbroa ere bai, atzo bezala. Dena den, tenperatura igotzen joango da.



**LARUNBATA 20**

Azoreetako antizikloia gerturatzean, ipar-mendebaldeko haizeak joko du eta tenperatura ez da hain hotza izango.



**IGANDEA 21**

Zirimiriak segituko du gurekin. Tenperaturak antzerakoak eta haizea mendebaldetik eta ipar-mendebaldetik tartekatuko da.

## Ilargia



**Ilgora**

Otsailaren 23an, asteartea, ilgora izango dugu. Piscisen hilabetean sartuko gara otsailaren 20an.

## Mezak

#### Parrokia

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

#### San Frantzisko

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

#### Uribarri

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### San Andres

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

#### Santa Teresa

##### Larunbatean

19:00 (elebiduna)

##### Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

**Urkuluko uraren maila**

**%99,9**



## Urteurrena

Orain dela urtebete *Arrasate Pressen*:

- LKSk Arrikruzetako proiektua egiteko baimena jaso zuen, Oñatiko Udaletik.
- Iturriotz kaleko Euskadiko Kutxaren bulegoa erabat kiskali zen eraso batean.
- Arrasateko Udalak euskara erabiltzeko plana jarri zuen abian langileen artean.

# Zer irizten diozu Ingalaterrako gobernuaren erabakiari?

*Ingalaterrako gobernuak erabaki du arriskutsuak diren txakur guztiak antzutea.*



**Josune San Vicente**  
(32 urte)  
Irakaslea

Gogorra da, baina kontrol piska bat izan behar dela uste dut. Txakurrekin kontuz ibili behar da..



**Saioa Ozerinjauregi**  
(21 urte)  
Ikaslea

Ez. Mundu guztiak dioen bezala, txakurra jabea bezalakoa da, beraz, jabea hezi beharko guke lehenengo.



**Naiara Unamuno**  
(22 urte)  
Ikaslea

Txakurrak norberak hezitzen dituen animaliak dira eta zaindu beharko litzatekeena da nork ze txakur hezi.



**Jesus Villar**  
(29 urte)  
Langabea

Bakoitzak nola zaintzen dituen izan beharko litzateke kontuan. Baina lotuta eraman beharko litzuketete.



**Roberto Hierro**  
(30 urte)  
Irakaslea

Azken gertakizunek eragindako erabaki bat litzateke eta ez litzateke bidezkoa izango. Ez da komenigarria orain hartzea erabaki hori.




**Inma Jimenez**  
(28 urte)  
Langabea

Debekatu behintzat, ez. Jabearen esku dago txakurra heitzeko modua.



**Inko Zubia**  
(12 urte)  
Ikaslea

Ez litzuzke debekatu beharko, baina muturrekoa ipinita eraman beharko lirateke txakurrok.



**Agustin Agirre**  
(54 urte)  
Erretiratua

Nik txakurra daukat eta txarra baldin bada hobe kentzea, baina debekatu behintzat ez.

**BENGOA**

Lurrindegia • Bitxitegia Opariak

**Saldu edo eskuz aldatzeko**

Zerkaosteta, 5 • Tel.: 943 79 28 85

**LASER DEPILAZIOA**

- Behin betikoa, azkarra, ez du minik egiten
- Depilazio sistemak, zerbitzu medikuaren bermearekin
- Aholkularitza eta aurrekontuak

Itaca Zentru Mediku eta Estetikoa

Dr. Juan Carlos de Andrés Guerra.  
General Alava 7. GASTEIZ. Tel.: 945 13 92 56 RPS. 492/98

# 19

ostirala

■ ZINEA

*La hora de los valientes*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ KONTZERTUA  
GAZTETXEAN

22:00etan, Nola bestela? Elorrioko neskaz osaturiko punk taldea, Isteria, Durangoko punk taldea eta Arto-Bixarra Elorrioko punk taldearen kontzertua.

■ KULTUR ERROTA

Kultur Errotaren barruan Mikel Urdangarin eta Iñaki Labaka arituko dira Aretxabaletako udaletxe zaharrean, gaueko 22:30etatik aurrera.

# 20

larunbata

■ ZINEA

*Enemigo público*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ BENITOREN  
KONTZERTUA

Euskal Herrian Euskaraz eta Itturri kulturgintza zerbitzuak antolatuta, Benito Lertxundiren kontzertua izango da Amaia antzokian, gaueko 22:30etan. Sarrerak aurrez, Hire liburudendan, Kajoi eta Irati tabernetan eta Euskadiko Kutxaren lau egoitzetan daude salgai, 1.300 pta.tan. Sarreran, ordea 1.500 pta. kostako da.

# 21

igandea

■ ZINEA

*Enemigo público*, Alai zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

# 22

astelehena

■ ZINEA

*Enemigo público*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ESKOLAKO ANTZERKIA

Erguin herri eskolako 5. mailako ikasleek *Bazasor banda* antzezlan eskainiko dute, arratsaldeko 18:00etan. 6. mailakoek, berriz, bertso-gintza eta musika antzezlan eskainiko dute.

# 23

asteartea

■ ZINEA

*Enemigo público*, Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ ESKOLA ANTZERKIA

Arratsaldeko 18:00etan, Erguin herri eskolako 1. mailako ikasleek Erdurte Zuri antzezlan eskainiko dute. 2. mailakoek, berriz, Bigantxaren ordaina antzezlan.

■ BATZAR OROKORRA

San Viator ikastolak batzar orokorra egingo du San Viatorko aretoan. 1. deialdia 18:00etan eta 2. deialdia 18:15etan izango da. Beste gai batzuen artean Hezibideren proiektu berriaren onarpeneren proposamena aztertuko da.



## Mendi irteera

Besaidek irteera antolatu du Artatza-Krezmendi-Irantzu mendietara otsailaren 28rako. Izen ematea, otsailaren 23, 24 eta 25ean izango da arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara, Besaideren egoitzan. Irteera Goazen Mendiriz Mendi ekitaldiaren barruan egingo da, Euskal Mendizale Federazioak 75. urte ospatzeko. Krezmendi mendian Tuterako Ketzal mendizale taldearekin elkartu eta Besaidekoek makila bat jasoko dute eta hurrengo asteburuan Baigura mendian Barañaineko Lagunak mendi taldeari pasatuko diote. Maiatzaren 5ean, Elgetara iritsiko da makila.



# 24

## asteazkena

### ■ ESKOLA ANTZERKIA

Erguin herri eskolako 3. eta 4. mailako ikasleek *Errege Zorria eta Sorginkeria Aldrebesak* antzezlanak eskainiko dituzte arratsaldeko 18:00etan, Erguin herri eskolan.

# 25

## osteguna

### ■ SFX BATZAR OROKORRA

San Frantzisko Xabier Ikastolak batzar orokorra egingo du arratsaldeko 18:00etan, lehen deialdian eta 18:30etan, bigarren deialdian, Gazteluondoko batzar aretoan. Besteak beste, txosten ekonomikoa, gestio plana eta Hezibideren proiektuaren akordioak izango dituzte mintzagai.

### ■ BATZARRA UDALETXEAN

Gestorak eta Senideak taldeek deituta, batzarra egingo da udaletxeko osoko bilkurako aretoan, arratsaldeko 19:00etatik aurrera.

### ■ JABILOREN ALDEKO ZOKKETAKO ZENBAKI SARITUAK:

- 1.- 14.612
- 2.- 08059
- 3.- 14.926
- 4.- 09635
- 5.- 28.935

Sarituak honako zenbakira dei dezakete:  
943 79 45 17

### ■ MASAJE IKASTAROA

Jose Luis Armendiak, Arrasate Yoga Elkartearen laguntzaz, masaje ikastaroa eskainiko du otsailaren 27an eta 28an. Ikastaroa Dharma yoga zentroan izango da, larunbatean 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta igandean, berriz, 10:00etatik 14:00etara.

### ■ ULMA-CEGASAREN AURKEZPENA

Larunbatean, otsailak 20, Ulma-Cegasa afizionatu mailako txirindulari taldeak aurkezpen ekitaldia egingo du Oñatiko unibertsitateko gela nagusian. Aurkezpen ekitaldia eguerdiko 12:00etan izango da.

### ■ AISIALDIRAKO ZUZENDARIAK

Txatxilipurdik aisialdirako zuzendari ikastaroa antolatu du. 21 urte betereik izatea eta begirale titulua izatea eskatzen da. Matrikula epea otsailaren 26an amaituko da. Berri gehiago 943 79 54 46 edo 943 77 17 39an.

### ■ ESKI IRTEERA

Besaideren eski taldeak San Josef zubirako eski irteera antolatu du. Informazioa eta izen ematea Besaideren egoitzan astelehen, astearte eta asteazkenetan, 18:30etatik 19:30etara edo 943 79 84 74 zenbakian.

### ■ EUSKAL DANTZAK

Gazteria Sailak euskal dantza ikastaroa antolatu du 15 urtetik gorakoentzat. Saioak martxoaren 5ean hasiko dira. Matrikula 1.000 pta. kostako da. Saioak ostiralero izango dira, arratsaldeko 19:00etatik 20:30etara. Izen ematea Gazte Bulegoan edo 943 77 00 65 zenbakian.



## ESKER ONA

1999ko Urtarrilaren 19an hil zen **Laureano Letamendi Ojearen** familiak bihotzez **eskertzen** die doluminak eman eta hileta elizkizunera agertu ziren guztiei.

USTEAK USTE

Hogeita hamaika urte

Hogeita hamaika urte igaro dira 1968ko apirilaren 17an Espainiako Gobernuak baimena eman zuenetik euskara eskola publikoetan sartzeko.

Hamabost urte nituen nik artean. Ordua arteko ikasketak guztiak gaztelaniaz eginak nituen. Mutil erdaldundua nintzen, ez bainintzen gai esaldi oso bat euskaraz esateko. Urte hartako abuztu-an, Amaten lanean hasi nintzenean, Luxio Murgoitik "Toledoko euskalduna" deitzen zidan, nire euskara kaxkarraz trufa eginez. Nire belaunaldiko gehienak, gerraosteko umeak, berdin samar genbiltzan euskara kontuetan.

Hogeita hamaika urte geroago, hamaisei urte arteko irakas-kuntzan ez dago A eredurik Arrasaten. D eredia (dena euskaraz eta gaztelania ikasgai) eta B eredia (elebiduna) dira nagusi gaur egun gure herrian, bai herri eskoletan, bai ikastoletan eta baita mojetan ere. Hala ere, nago Toledoko euskaldun askotxo ez ote dabilen bazterretan oraindik ere.

Joxe Aranzabal



Informatikaren onurak Aukean

\* Ramon Jauregi

Informatikan gertatzen diren aurrerapenak bizitza bera baino azkarrago doazela dirudi. Internet, posta elektronikoa, etab., orain dela urte gutxi pentsa ezinezkoak ziren; hemen dik urte batzuetara ez bakarrik enpresetan, etxean ere ezinbestekoak izango zaizkigu.

Enpresak beti izan dira aitzindari teknologia aurreratuak aplikatzeko orduan, informatika barne. Enpresa pribatuak hain zuzen ere, administrazioa beti joan baita atzetik. Gure kasua ez da bestelakoa, eta urte asko behar izan ditugu informatikari dagokionez egunean egoteko.

Aukea Kirol Erakunde an aspaldidanik somatu genuen gestiorako erreminta informatiko egoki baten beharra, orain arte erabiltzen ari ginea zaharkiturik baitzegoen. Bazkideen datu basea oso mugatua zen, ezinezkoa zitzaigun estatistikarik lortzea, eta sarrera kontrola eramateko bateraezina zen. Ondorioz, paraleloki bi datu base genituen, bata bazkideen ges-

tiorako eta bestea sarreren kontrolerako. Honetaz gain, bazkideen txartel magnetikoak egiteko prozesua luzea eta garestia zen, gutxienez hamabost egun behar genituen eta, txartelak banatzeko. Azkenik, ikastaroen eta instalazioen erreserbak eskuz egin behar izaten genituen.

Nabarituko duzue, honek hainbat arazo sortzen zizkigun: koordinaziorik eza, lan karga handia, erabiltzaileen beharrei erantzuteko zailtasuna. Ondorioz, merkatuan zeuden kirol hornikuntzak gestionatzeko aplikazio informatikoak aztertzen hasi ginen.

Sarean lan egiteko zerbitzaria, pentium ordenagailu berriak, bazkideen eta erabiltzaileen txartel magnetikoak egiteko inprimagailua,

“ Informatikari esker, eskaintza egokiagoak prestatzeko aukera izango dugu kiroldegian ”

argazkiak hartzeko escanerra. Azkenik, inbertsio nahiko handia egin dugu aplikazio informatikoa erosteko. Azken pausua sarrerako tor-noak egokitzea da, momentu honetan egiten gabiltzana.

Asko izango dira abian jarri dugun aplikazio berri honen abantailak, bai guretzat, bai erabiltzaileentzat ere. Gestioari dagokionez, izugarri errazten digu bazkideen altak, bajak, aldaketak, erre-ziboak eta txartelak egiteko prozesua; sarean lan egitean, instalazioen erreserbak erosoago egiteko aukera izango dugu; instalazioen erabilerari eta ikastaroei buruzko estatistikak lortzen ditugunean, eskaintza egokiagoak prestatzeko aukera izango dugu.

Erabiltzaileek ere somatuko dituzte programa honen alde onak: lehenik eta behin, bazkide guztiak txartel berria jaso dute beren etxeetan. Bazkide eta erabiltzaile berriek izena eman bezain laster jasoko dute txartela; baina gure asmoa da aldaketa garrantzitsuenak aurrerago soma ditzatela, erabileraren inguruko datuak jaso eta hauen arabera har daitezkeen erabakien ondorioz. Helburua da eskaintza eskariari egokitzea, adibidez instalazioen ordutegia, ikastaro berrien ezartzea, zerbitzu berrien azterketa, etab.

Hurrengo helburua izango da gestio hauek guztiak Internet bidez egiteko aukera ematea.

\* Aukeako kudeatzailea.

Hilbera kafetegia

Uribarri Etorbidea ARRASATE Tel.: 943 79 22 70



Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37 - behea Tel.: 943 79 79 46 • ARRASATE

## BERGARA

### 1 "Bergarako Bihargintza"

Bergarak udal elkarte berria eratuko du herriko industria eta enpresa ekintzak sustatzeko. "Bergarako Bihargintza 98 S.A." izenarekin jaio da eta hasierako kapitala 10 milioi pezetakoa du. 30 egunez egitasmoa jendaurrean egon ostean, behin betiko onarpena eman dio udalak.


Era berean, Industrialdearen bigarren fasearekin hasiko dira laster. 186 milioi pezetako aurrekontuarekin, Cerrajerako eraikuntza zaharrek betetzen duten 100.000 m<sup>2</sup>-etatik 35.000 hartuko ditu Industrialde berriak.

## ARETXABALETA

### 2 Atxabalta Telebista

Ostiralean estreinatuta zuten atxabaltarrek telebista berria. Atxabalta Telebista du izena, eta Loramendi Euskara Elkarrekin duela bi urte lantzen hasitako egitasmoaren emaitza da. Bi helburu nagusirekin jaio da: Aretxabaletan euskararen normalizazioa bultzatzea eta *Aretxagazetarekin* sortutako informazio gunea hedatzea. Aste-an hirutan izango dute programazioa: astelehen, asteazken eta ostiraletan. Batezbestek, hiru ordulaurdenerako emisioa egingo da. Albistegiaz gain, egun bakoitzean beste saio bat ere izango dute.

Zortzi lagun ibiliko dira egitasmo honetan lanean.



Oraingoz, plato bat eta editatzeko gela bat izango ditu. Bestela, *Aretxagazetarekin* sortua duten azpiegitura erabiliko du.

Egitasmo honek zortzi milioi pezetako inbertsioa jaso du aurrera egiteko.

## ANTZUOLA

### 3 Literatura lehiaketa

Patxiku Txerren literatura lehiaketa abian da dagoeneko. Antzuolako Udalak antolatutako lehiaketa honen hiruga-

ren aldia da aurtengoa. Oraingoan ere parte hartzaileak lau taldetan banatuko dira: 12-16 urte artekoak; 17-29 urte artekoak, 30 urtetik gorakoak eta erretiratuak. Epea, berriz, ia-zkoa baino luzeagoa izango da. Izan ere, aurten apirilaren 26arainoko astia dago. Udalak jendearen parte hartzea bultzatu nahi du.

Talde bakoitzean irabazten duenak, 25.000 pezeta ko saria jasoko ditu, lehenengo taldekoak izan ezik. Izan ere, honek 20.000 pezeta irabaziko baititu.

Informazio gehiago behar

duenak, udaletxean bertan jasoko du.

## OÑATI

### 4 Usain txarrak

Deba Garaiko Mankomunitateak lau milioi pezeta eman-goto Oñatiko Zubillaga auzoko hiltegiarentzat. Hiltegiaren inguruan egoten den usain txarra kentzeko erabiliko da diru hau. Izan ere, auzokideak behin baino gehiago kexatu izan dira arazo horren-gatik. Oraindik ez dakite nola lortuko duten usaina kentzea, baina Mankomunitatearen aurtengo aurrekontutik gordeta dago behintzat aipatutako diru kopurua.

Herriko hobekuntzekin jarraituz, udalak transformagailu bat erosiko du. Izan ere, udalak beti bi transformagailu izan ditu erreserban bada-zepada. Orain, aldiz, bakarria dauka eta, horregatik, Hazienda Batzordeak berria erostea onartu du.

## ELGETA

### 5 Eskolarentzako estalkia

Martxoan bukatu baino lehen, Herri Eskolarentzako jolastoki estalia amaituta egotea espero du udalak. Dagoeneko hasi dira zuzemenetan.

Era berean, leku itxi hau bestelako ekimenetarako ere erabiltzeko asmoa du herriko udalak. Dagoeneko, adibidez, argazki erakusketa bat egingo da.

**HIES**

**EKIMENA**

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

**LONTXO  
TABERNA**

Olarte, 12  
ARRASATE  
Tel.: 943 77 14 91

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**Takoi**

ZAPATA KONPONKETAK  
GILTZEN KOPIAK

Kalealdeia, 2 beheia (Larreako etxeak)  
Tel.: 943 79 84 95

## Ezinduentzako laguntza

Beren buruaz baliatzeko gai ez diren pertsonentzako laguntza zerbitzua jarri nahi du Lizarra elkarteak. Izan ere, asko dira etxean behar bezala zaindu ezin dituzten senideak dauzkaten familiak. Honen arrazoi nagusia da familiako partaideek gehienetan etxetik kanpo lan egiten dutela.

Zerbitzu hau emateko nondik norakoak pentsatuta ditzuzte dagoeneko. Orain, horiek bideratzeko jendea behar dute. Zerbitzua ekonomikoki aurrera eramateko biderik egokiena kuota bidezkoa dela uste dute.

Egitasmo honek jendearengan izango lukeen harrera nolakoa den jakiteko gutunak bidaliko dituzte familia bakoitzeko. San Andres auzoan hasiko dira eta gero Musakolan jarraituko dute. Auzo hauek jasotako erantzunen arabera bidaliko dituzte beste gutunak Arrasate osora.

Lizarra elkarteak San Andres auzoko Dr. Bañez kalean dago eta beren proposamena egiteko hainbat familiaren inguruan egindako azaleko azterketa batean oinarritu dira.



Hirurogeita bost urte baino gehiago behar dira izan, Gizartekintzaren aukeraz profitatzeko.

## Mediterraneoan, Galizia eta bainu etxeak aukeran, Gizartekintzaren eskaintzan

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintzak atera ditu dagoeneko 65 urtetik gorako jendearentzako bidaia programak. Hiru eskaintza jarri ditu aukeran.

Eguzkia nahi dutenak Alcoceberrera joan daitezke, Castellonera. Hilabete edo bi igaro ahal izango dute, hiru izarreko hotel batean. Otsailen eta martxoan doazenen hilabete egingo dute. Hortik aurrera badago bi hilabeteko egonaldiak egiteko aukera.

Xacobeoa aprobetxatuz Santiago de Compostelara joan nahi dutenek aukera ederria dute orain. Gizartekintzak bost eguneko bidaia eskaintzen die, bidean toki zoragarriak bisitatzeko aukera emanez. Santiagon lau izarreko hotel batean egongo dira.

Bainuetxeak gogoko dituztenei ere aukera eskaintzen die Gizartekintzak. Arnedillo, Fitero edo Seron aukera daitezke. Guztira 745 plaza, udaberria eta udazkena

bitartean banaturik. 11 eguneko egonaldiak egin ahal izango dira. Mantenu osoa eta egunean bi tratamendu sartzen dira prezioan.

Aukera hauek aprobetxatu ahal izateko 65 urte baino gehiago izatea, Gipuzkoan bizitzea eta buruko gaixotasun larriak ez izatea eskatzen da. Interesa duzenok udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo dezakezue informazio bila. Eskararak, berriz, Bergarako Zaharren etxean egin behar dira.

## 2.000 milioi hobekuntzak egiteko Fagor Elektronikan

Fagor Elektronikak 2.000 milioi pezeta inbertituko ditu datozen hiru urteotan. Fagor Elektronikak lantzen dituen bi arlo nagusietara bideratuko da diru hori. Alde batetik, telebistaren seinalea jasotzeko aparailuetan, hau da, satelitea eta lurreko telebista hartzailetan, eta bestetik, zelula produktibo berrietan. Azken kasu honetan, semi-



konduktoreak hobetu eta oraingo beharretara egokitu nahi dira, mikrotxip eta antze-

ko pieza berriak egin edo berritzu, hain zuzen ere. Era berean, 2001. urtean, 500

langiletik gora edukitzea espero da.

### INBERTSIOAK GORA

Fagor Elektronikak azken hiru urteetan egin dituen inbertsioak geroz eta handiagoak dira. Lehen 200-300 milioi pezeta inguru inbertitzen bazen, orain, 500-700 milioi pezetako inbertsioak egiten dituzte urtero.

# MECA TAILERRAK



## 30 urtetik gorako esperientzia

- Mekanika, elektrizitatea
- Karrozeria
- Ordezko piezak
- Auto berriak
- Bigarren eskuko autoak
- Alokatzeko autoak
- Garabia 24 orduz, urteko 365 egun.

**MECA TAILERRAK**

San Andres auzoa, 8 • Tel.: 943 79 50 12 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

*Kalitateak, mugarik ez.*



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabilioia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE

# Garibairen sasoiko Arrasate

Bi hilabete inguru barru, "Arrasate en la época de Garibay: acero y armas" liburua kalean izango da. Jose Antonio Azpiazu legazpiarra da egilea eta Esteban de Garibai eta Zamalloa bizi izan zen sasoi-ko Arrasateko bizimodua aztertuko du. Esteban de Garibai 1533. urtean jaio zen Arrasaten, bere izena daraman etxean. Hiribilduaren erreketaren ondorengo garaiak, burdin olen garrantzia eta gizartearen mailaketa jorratzen ditu liburua.

1.500 ale plazaratuko dira. Arrasateko Udalak milioi erdi pasatxoko diru laguntza eman du, lan hau egiteko.



rias de Garibay" izena duen liburua arrasatearrak memoriari aitapen duena aztertu eta komentatuko du.

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak orain bi urte bultzatutako egitasmoaren emaitza dugu hauex. Batetik Garibairen autobiografa azalduko da eta bestetik, memoria hauen inguruan egin diren ikerketak lanen emaitza.

Esteban de Garibai eta Zamalloa Arrasateko alkate eta Gipuzkoako batzarkide izan ondoren, Felipe II erregearen kronikagile izan zen. Honetaz gain, erlijioari lotutako gizona eta bidaiari nekazina ere izan zen. Honen adibide da bere "Compendio Historial" izeneko liburua. Espainian zehar ibili ondoren batutako kontuak jaso zituen han.

## MENDEURRENA

Bestalde, aurtan Esteban de Garibai eta Zamalloa hil zene-

ko laugarren mendeurrena betetzen da. Hori dela eta,

Garibairi buruzko beste liburu bat kaleratuko da. "Memo-

B	O	W	N	D	C	A	R	I	S	M	A
H	E	M	I	T	S	U	B	I	S	H	I
A	K	D	S	Ñ	O	J	B	Y	U	G	E
H	R	M	S	B	S	8	O	F	D	C	Y
U	J	S	A	I	G	V	U	V	4	O	P
H	Y	U	N	D	A	I	L	O	Y	N	R
M	U	T	M	W	L	T	I	R	O	F	U
I	T	V	S	E	L	O	Y	H	V	O	L
C	K	I	E	V	O	L	V	O	L	R	E
R	B	T	J	U	P	Y	M	B	X	T	T
A	G	O	I	M	E	R	C	E	D	E	S
O	T	B	E	J	R	Y	F	R	M	E	L
P	A	C	C	E	N	T	K	E	R	I	U

Bila itzazu sei  
**AUTO MARKA**  
desberdin...

Ez begiratu gehiago,  
zatoz Aldibi-ra!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

**VOLVO**

Auto Suecia



Almovil, S.L.



Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 943 71 20 02 / Faxes: 943 79 65 65

# SUDC desagertzeko zorian

**Mondragoeko Elkarte Gastronolikoak batzen dituen SUDC elkarteak desagertu egingo da, baldin eta zuzendaritza batzorde berria eratzten ez bada. Izan ere, oraingo zuzendaritza batzordeak dagoeneko zazpi urte daramatza lanean eta aldatzeko ordua dela diote osotzen duten sei kideek.**

Jose Ramon Arkauz da zuzendaritza batzordeko presidentea, Roberto Zazo diruzaina, Roberto Beltran idazkaria eta Jesus Mari Arze, Jesus Mari Egidazu eta Antxon Zumalde bokalak. 1994-95. urtean ordezkatu behar zituzten. Oraindik ez dago inor haien lekuak betetzeko prest.

Jose Ramon Arkauz presidentearen esanetan, lan ugari egin du SUDCek urte haueetan. Honek gauza on ugari ekarri dizkie elkarteko kideei: jendea ezagutzeko aukera, toki askotan sartzea eta baita lagun oso onak egitea ere. "Oso aberasagarria izan da eta ilusio handiarekin egin dugu lan".



Erretiratuen omenezko afaria ere SUDC elkarteak egin zuen .

Baina aldi berean, nekatu egin direla ere adierazi digu Jose Ramon Arkauzek. Izan ere, arestian aipatu bezala, urtean zehar lan asko egiten dute. Herriko ekitaldi pilo antolatzen dituzte eta horrek lan eta ordu asko eskatzen ditu. "SUDCek batzen dituen 24 elkarteetan 2.500 pertsona daude. Hortik sei pertsonako zuzendaritza batzorde berria ez bada irteeta, konponduta gaude!".

## DIMISIOA

Abenduan batzar orokorra egin zen eta hantxe dimitituko zutela iragarri zuten oraingo zuzendaritza batzordeko sei kideek. Horrekin batera, bi urtetik behin SUDCeko junta erdi berritzea proposatu zen.

Gauzak horrela, urtarrilean eta otsailean SUDCen barruan dauden 24 elkarteetan batzar orokorrak egin behar dira. Batzarretan herriko elkarte bakoitzak SUDCera ordez-

karia aukeratuko du eta hortik zuzendaritza batzorde berria atera beharko da martxoa baino lehen. Bestela, oraingoek behin betiko utziko dituzte karguak.

Dena dela, bestelako zuzendaritza batzorderik ez dagoen artean, beren lekuetan segituko dutela ere adierazi dute. Sortuko den batzorde berriari, berriz, laguntza osoa emango diotela ere gaineratu dute.

## 35 urte lanean



SUDCek ia 35 urte daramatza herrian lanean. 1963. urtean sortu zen orduko lau elkarte gastronomikoen: San Isidro, Udalpe, Danobat eta Casino. Hemendik datorkio izena. Geroa, herrian jaio izan diren elkarteak bere baitan batu ditu.

Hasiera hasieratik herriko kulturaren sustatzaile garrantzitsua izan da SUDC. Nork ez du ezagutzen elkarte honek eginiko hamaika gauza: inauteriak, doke eta mus txapelketak, San Juan eguneko danborrada, entzierroa, *play-back* jaialdia ... eta noski, hainbat eta hainbat bazkari eta afari. Honetaz gain, herriko hainbat kultura elkarte ere SUDCen magaletik irten dira: Goikobalu edo Trikiti Eskola adibidez. Askok zor dio Arrasatek elkarte honi.

## astea bi hitzetan

### ■ Biribila San Prudentzian

Datorren urtean San Prudentzian biribil bat egingo da. Oñatira, Arrasatera edo Bergarara doazenek egunero-egunero jasaten dituzten trafiko arazoak konpondu nahi dira. Honekin batera, San Prudentzio eta Epele lotzen dituen bidea ere hobetu egingo da.

Anton Jaimek, Gipuzkoako diputatu nagusiak jakinarazi duenez, Euskal Herriko Errepideen Plan Orokorrean onartutako egitasmoa dugu hauxe.

### ■ Eroski, Agurainera

Eroskik banaketa zentro handi bat egin nahi du Agurainen. Arabako Foru Aldundiarekin eta Aguraingo Udalarekin hitz egiten ari da tratua lortzeko.

Aguraingo zentroak Eroskik penintsular zehar dituen saltokiak hornitzeko balio luke.

Elorrioko biltegi nagusiaz gain, Eroskik Zornotzan, Bilbon, Zaragozan, Ponferradan, Bartzelonan, Valentzian, Getafen, Malagan, Coruñan eta Vigon ere badauzka produktuak banatzeko zentroak.

### ■ Butano preziatua

Orain 20 egun pasatxo hasi zen butano garraiolari autonomoen greba. Ordutik hona, jendea larri dabil butanoa lortu edo ziurtatu nahian. Izan ere, Deba Garaian Repsolek daukan biltegiak butanoa banatzen segitu arren, askotan gabeziak jasan dituzte biltegietan bertan. Kontua da Zumarragako biltegia betetzeko, kamioiak Santurtzira joan behar direla bonbona bila. Gero Zumarragara eramaten dituzte, eta handik Deba Garaira eta Goierriara. Askotan, kamioiek egunean hiru buelta egiten dituzte eta hala eta guz-

tiz ere, butanoa berehala gastatzen da. Gainera, orain negua izateak zaildu egiten du egoera.

### ■ Arkitekto berria

Laster udal arkitekto berria izango dugu. Hiru pertsona aurkeztu dira lanpostu honetarako eta dagoeneko azterketak egiten ari dira. Aste honetan hirugarren frogatik egin dute eta bakarra gelditzen zaie arkitekto berria izendatzeko. Azkenengo frogatik honen eguna zehazteko dagoen arren, datorren martxoaren hasierarako arkitekto berria izango dugu udaletxean.

Urriaren 4an hasi ziren arkitektoaren arazoak Arrasateko Udalean. Orduan Tito Percas zegoen arkitekto lanak betetzen, baina bere kontratua ez berritzea erabaki eta kaleratu egin zuten. Harrezkero, Toledo Taldea ibili da haren lanak betetzen.



### CERRAJERAN ETXE GEHIAGO

Cerrajeran etxebizitza gehiago egin ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako txosten baten arabera. Orain arte, 280 etxebizitza egitea espero zen. 80 babes ofizialekoak eta 200 etxebizitza arruntak. Orain, aldiz, 32 etxebizitza gehiago egin ahal izango dira. 92 babes ofizialekoak eta 220 etxebizitza arruntak. Apirilaren bukaera baino lehen zehaztuko da behin betiko zenbat etxebizitza egingo diren.

“ Garraioaren aldetik eragozpen handiak ditugu, oso-oso gaizki dago zerbitzu publikoa. Nik uste dut bailara honek ez duela merezi horrelako garraio kaskarra edukitzea. Azpiegitura horiek beharrezkoak ditugu, batik bat garraio publikoarena. Izan ere, autorik ez dutenek arazoak izaten dituzte batera eta bestera mugitzeko. Bailara honek nahitaezkoa du komunikabide egokiak izatea”.

### IÑAKI LAKUNTZA

Euskaldunon Egunkaria  
1999.2.10

**Lore**  
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 52 50



MARKO-JARTZEAK  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**M ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07




## KAZETARIRIK GAZTEENA

Ziur 21 urterekin 20rekin baino ederragoa izango zarela. Ea ba horrela senargairik topatzen duzun, badakigu eta jarraitzaile ugari dituzula atzetik! Zorte on! Eta... zorionak zure lankideen partetik!!!

## JAIOTZA OPAROA

Santana baserrian 7 bildots jaio dira azken hiru aste hauetan. Oso bereziak dira gainera, laukiak eta hirukiak baitira. Romanov arrazakoak dira, jateko oso preziatuak. Orain guztira 30 ardi dauzkate, 12 handiak eta 18 arkumeak.



## AKABO FESTA

Inauterien ostean, Garizuma dator. Pazko garairako hausnarketa eta otoitz aldia. Hausterre egunak ematen dio hasiera eta urtero legez, aurten ere parrokia umez bete zen asteazkenean. 150 haur baino gehiago izan ziren hautsa hartzen.



## BAT ETA BAT...BI!

Hau ez da kazetariok eginiko trukaketa bat, ez. Anuska Lasa bera da. Ohi baino apurtxo bat borobilagoa dirudi, ezta? Normala, bi hilabete barru mutikotxo bat gehiago izango da eta familian.





## Inauteriak guztiontzat

Goizean haurrak izan ziren inauteri jaietako erregeak. Begira zein polit zeuden, adibidez, Umezaintzakoak. Gero, gu joan ginenean, dantzan utzi genituen. Erguin Herri Eskolakoak ez ziren atzean gelditu eta hauek guretzat dantzatu zuten.

Mozorro oso bereziak ere ikusi genituen. Kontua da mozorroa jantzi eta kalera ateratzea.



### HIES EKIMENA

Astelehen, astearte  
eta ostiraletan  
Setatik Betara.

Tel.: 943 79 26 99

## PUB HAIZEA



### •ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak  
ENMARKAZIOAK

Laminak, Izpiluak,  
Margoak

Ferrerias, 11 Tel.: 943 - 77 10 95  
ARRASATE



## Inauterietako erregina... sardina!

Honelakoxea zen erre aurretik Haratuzte jaien erregina. 4,20 m. luze zen eta egurrez, kartoiz eta eskaioz eginikoa. Barrualdean 15m.ko traka zeraman. Jesus Maria Egidazu eta Crisantomo Margusino SUDCEko kideak izan dira sardinagileak.

## Musikari zaildua

Badago ahalegin berezia egin zuenik ere inauteri jaiez gozatzeko. Quintanillasek kartzelatik ihes egin zuen eta hara non topatu genuen soinu eta guzti poz-pozik!

## Hori da, hori, umorea!

Iturbide Egoitzako nagusiek inauteri jai ederra egin zuten martitzenean. Euren egindako jantziekin mozarrotu, lagunuen aurrean desfilea egin eta dantzara!



**Sagardotegia**

**ITURROIETA**

**Txotx egin!**

Astlehenetik asteazkenera enkarguz  
Ostegunetik igandera zabalik

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

**Pavimentos AGR**

**AROSZTEGIA**

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak  
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar  
MATERIALEN SALMENTA

**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

# Esku hutsik arituko dira

Datorren larunbatean, otsailak 20, Euskal Herriko Karate Txapelketa jokatu da Arrasaten, senior mailan. Saioa Karate Gimnasioak eraberrita, laugarren aldiz izango da horrelako txapelketa bat herrian jokatzeko dena. Dena den, aurreko urteetan haur eta junior mailako karatekak aritu ziren lehian. Aurten, aldiz, nagusien txapelketa izango da.

**E**sku hutsik arituko dira Euskal Herriko 125 bat karateka datorren larunbatean Iturripen. Esku hutsik, horixe esan nahi baitu karate berbak.

*Kara* hitzak hutsik eta *Te* hitzak, esku.

Karatearen historia errepasatuz gero, Indiaraino jo behar dugu, Daruma edo Bohodiharma lekaide budistarengana. Zen delakoa budismo txinatarrarengana eraman nahi izan zuen. Garai hartan lekaideek animaliegiengandik eta euren etsai erlijiosoengandik babesteko egiten omen zuten borroka. Baina karatea borro-

ka teknika hutsa ote?

Iñaki Muñoz Saioako irakaslea *sensei* edo maixu nagusia da eta berak dioenez, "karatea ez da kirol hutsa, artea baizik. Burua, gorputza eta izpiritua orekatzen laguntzen duen artea". Horrela ulertzen du Iñakik karatea eta horrela ikusten zuen Gautama Sidarthak, Budak, ere "ez dago ezer txarrik bakez eta maitasunez beteriko gizon bat borrokan ere tre-

bea denean", zioen hark.

## KYOKUSHINKAI

Karateak estilo ugari ditu eta Saioako karate borrokalariek Kyokushinkai estiloa lantzen dute. Gaur egun 15 milioi lagunek lantzen dute estilo hau mundu osoan zehar. Estilo hau Masutatsu Oyamak sortu zuen. 1923an jaio zen, Seulen (Korea) eta bederatzita urterekin Kempo txinatarra ikasi zuen. Hamazazpi urterekin bigarren *dan* zen eta hogeita laurekin, berriz, laugarren *dan*.

Karatean gerriko beltzak ditugu ezagun. Baina *dan* maila lortzeko gerriko beltza izan behar aurretik. Hamar maila

**"Karatea ez da kirol hutsa, artea baizik. Burua, gorputza eta izpiritua orekatzen laguntzen duen artea"**



Iñaki Muñoz da senior mailako karateken *sensei* edo irakaslea.

# Iturripen karatekak

ditu *dan* kategoriak eta Iñakik kontatu digunez, "munduan hiru edo lau lagunek baino ez dute 10. maila. Euskal Herrian 7. maila duten bi maixu daude". Laugarren mailatik gora karatearen alde lan asko egin dutenei ematen zaie. Iñakik berak hirugarren maila dauka

*dan* kategorian: "Euskal Herrian 800 bat lagunek izango dugu hirugarren maila".

Honez gain, Iñakik Gipuzkoako txapelketa eskuratu du lau aldiz eta Euskal Herrikoa birritan. "Baina ohore handien eman didana iaz lortutakoa izan zen. Parisera deitu zida-

ten nazioarteko karate erakustaldi batera. Hura sinestezina izan zen. Mundu osoko jendea izan ginen gora begiratu eta amaigabea zirudien kiroldegi batean. Gehiegi!".

## KARATEA SAIOAN

Orain dela ia hogeitun urte iritsi

zen karatea Arrasatera. Orduan Musakolako kiroldegian egiten zen, Oscar Calvo irakaslearekin. Gasteiztarra zen. Haren ondorengoa, berriz, arrasatearra. Francisco Carreterok kiroldegitik Saioako gimnasioa ekarri zuen karatea 1986an.

Harrezkero geroz eta ikasle gehiago dabilta Saioan. Taldea 1988an eratu zen, hogeitun bat lagunekin. Gaur egun, ostera, ia 100 lagun ari dira Kyokushinkai estiloa lantzen. "Ikasle gazteenak bi urte ditu eta zaharrenak, berriz, 65. Hauetatik laurdenak neskak dira".

Iñakik berak azaldu digunez, "taldearen maila igotzen joan da. Hasiere batean gerriko beltz bakarra zegoen taldean eta gaur egun zortzi lagunek lortu dute maila hori. Hauetako bik, gainera, *dan* bigarren maila ere badute".

Iñaki eta Luis anaiak dira Saioako karateka guztien *sensei* edo irakasleak. Luis ikasle gazteez arduratzen da. Beste guztiak Iñakiren zuzendaritzapean daude.

## ERIK MARTIN

Mondragoetar hau izango da larunbatean Saioa Karate Gimnasioa ordezkatzeko txapelketan. Bere bigarren parte hartzea izango da senior mailan. Baina Iñakik kontatu digun bezala, "zaila izango du, orain arte junior mailan leihatuta delako". Orain dela hilabete Erikek bronzeko domina lortu zuen Espainiako junior txapelketan. 70 kiloz azpiko *kumitean* arituko da larunbatean. ■

## Euskal Herriko txapelketa

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako senior mailako karatekak arituko dira larunbatean Iturripen. Guztira 125 bat lagun. Euskal Herriko taldeen erdiek izango dute ordezkaritza Iturripen. Bi modalitateetan jokatu da txapelketa.

*Kumite* motan, ukipen bareko borrokan, sei mailatan (pisuaren arabera) lehiatuko dira mutilak eta hirutan neskak. *Katan*, berriz, hau da, keinu teknikoetan, bi maila izango dira: neskak eta mutilak, pisu edo bestelako bereizketarik barik. *Kumitean*, aurrez aurre jartzen diren bi karateken iaotasuna epaituko da. *Katan*, ordea, malgutasuna eta dotorezia.

Saioa Karate taldeak ez du inongo laguntzarik jaso txapelketa antolatzeko, nahiz eta Iñakik eta Luisek gogoratu digutenez, "gure ikasle batzuek eskainitako laguntza benetan garrantzitsua izan da".

Txapelketa bihar larunbatean izango da, arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

## Kyokushinkairen aginduak

1. "Ahaleginik behinenak eskainiko dizkiogu izpiritua, adimena eta gorputza garatzeari".
4. "Gizalegearen arauak gorde eta gure nagusiak errespetatuko ditugu, indarkeriatik aldentuz".
5. "Inoiz ez dugu apaltasunaren benetako birtutea ahaztuko"
7. "Kyokushin Karateak ematen duen diziplina erabiliz, Bidearen erabateko eta benetako zentzua bilatuko dugu"



Erik Martin izango da mondragoetar bakarra Euskal Herriko karate txapelketan.

Marijo Deogracias

## MCCk VII Kongresua prestatzen dihardu

Datorren maiatzaren 26an, MCC osatzen duten kooperatibetako 650 ordezkari Gasteizko Europa biltzar jauregian elkartuko dira, korporazioaren VII Kongresuan.

Kongresuaren aztergairik garrantzitsuena eta bakarra MCCren *enpresa politika 2001-2004* aldiz irazteko da. Agiri horretan MCCk aldi horretan taldearen gestiorako hartuko dituen abiapun-

tuak finkatzen dira: misioa, balore korporatiboak, oinarritzko helburuak eta politika nagusiak.


VII Kongresuko prestatze lanak aspaldi hasi ziren. Dagoeneko biltzar-kide guztiek jaso dute txostena. Orain eztabaidatze-ko garaia da.

MCCren kongresua eratu zenetik 1984an, sei aldiz bildu da. Berau da MCC osatzen duten kooperatibetan egiten den eki-

taldirik inportanteena. Bere helburuetan nagusienetako bat da kooperatiben esperientzia zabaltzea, hobetzea eta bultzatzea.

Kongresua nahi eta behar adina bider bil daiteke, baina gutxienez lau urtez behin batu beharra du. Orohar, erabakiak gehiengo erlatiboz hartzen dira, salbu eta Kongresuko Plenoak esaten duenean botoen bi heren behar direla.

### EGITURA ESTRATEGIKOA MCCn



Iturria: TU Lankide

## Euroa

**Nork aldatuko du nire kontu korronteko, erretiro pentsioko edo akzioetako dirua eurotan?**

Dirua duzun finantza etxeak egingo du, truke ofiziala erabiliz. Kopuruak biribildu behar direnean, bankuak kontuan izango ditu Europako araudiak eta hemengo legeak. Eurotan aldatzeak ez du saldoen benetako balorea aldatuko, ezta kontuen interes tipoa ere. Akzioak aldatzeko, bestalde, ez da premiazkoa izango bankuek aldateta fisikoa egitea.

**Euro baten balio**

**166,386 pta.**



# LASAGABASTER-en

## AUKERARIK ONENA



**DOCKERS®**  
pants by  
Levi Strauss & Co.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate  
bihurtzen diren  
ilusioak

## SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g

ARRASATE

Tel.: 943 79 00 43

## BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tel.: 943 79 99 42

**FAGOR**



# Bakarrik arriskuaren aurrean

**T**xapelketa hasieratik egoera piska bat aldatu da taldeen artean. AT Celaya taldeak, esaterako, zortea izan duela esan dezakegu. Partida bat gutxiago dauka eta B taldeko hainbat taldek kale egin duenez, aukera guztiak ditu bigarren aldira pasatzeko. Zorionak, beraz!



## Laburrak

### ■ **BESTE BAT GUTXIAGO**

Los Heredia taldea izan da haratuzteetako asteburuan txapelketatik kanpo gelditu den taldea. Jadanik bederatzira jausi direnak. Martxa honetan gure aurreikuspena bete egingo da. Gainera, B taldetik bost talde gelditu dira kanpoan. Gauzak horrela, eta hamar sailkatzen direnez 2. aldirako, gelditzen diren talde ia guztiak pasa daitezke. Potrosorrik eta AT Celaya norgehiagoka bat gutxiago dute.

### ■ **ITURRIPE B, AKABO**

Geroz eta talde gutxiago daukenez, Iturripe Bn jokatzen ziren norgehiagokak, bertan behera gelditzen dira. Ez da beharrezkoa, beraz, Iturripeko bigarren futbito zelaia.

### ■ **LEHEN GARAIPENA**

Construcciones Luso taldeak txapelketako lehenengo norgehiagoka irabazi zuen joan den asteburuan. Eusko Label taldeari 3 eta 1 irabazi zion. Hori dela eta, bere lehenengo

bi puntuak lortu ditu taldeak. Dena den, eta minus bi puntu zituztenez, orain punturik gabe gelditzen dira. Ea ba hemendik aurrera batzen hasten diren!

### ■ **BIGARREN ALDIRAKO ZOKKETA**

Aurreko urteetan bigarren aldirako zokketa talde guztiak zaku berean sartuta egiten zen. Aurten, ordea, eta zokketa orekatuagoa izan dadin, lau zakutan banatuko dira bigarren aldira pasatzen diren taldeak.

Lehenengo zakuan, lau talde sartuko dira: hiru taldeetako lehen sailkatuak eta bigarrenen arteko sailkatuak onena.

Bigarren zakuan, bigarren bi talde onenak eta hirugarren tokian gelditzen diren lehen bi taldeak zozkatuko dira.

Hirugarren zakuan gelditzen den hirugarren taldea eta hiru taldeetako laugarrenak sartuko dituzte. Azkenik, eta laugarren zaku batean, gelditzen diren beste guztiak zozkatuko dira.

**Erretiratuentzako prezio bereziak**  
astelehen, astearte eta asteazkenetan.

**Gazte zaitetz prezio berriekin!**



# EDERTU

Ileapaindegia • Solariuma

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28 • **ARRASATE**



Umezaintza Haur Eskolak  
**Heziketa Bereziko laguntzaile bat**  
kontratatu nahi du.

**Titulazioa:**

- EGA
- LH1 Osasunean, Etxe-arloan edo Komunitatearentzako zerbitzua edo LH 2 Ezintasun Psikikodunen Hezkuntzan edo Psikiatria laguntzailea

**Interesatuok dei egin**  
Otsailaren 22an 943 79 01 02 telefonora



## Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
ORLANDO PIR.	14	14	0	0	84	29	<b>28</b>
LONTXO TABERNA	14	10	2	2	75	35	<b>22</b>
XHASSS UGARTE	14	10	2	2	82	45	<b>22</b>
AC SURKOS	13	9	3	1	85	45	<b>21</b>
PEPELUS	14	8	4	2	50	38	<b>20</b>
ALDIBI	14	9	1	4	87	43	<b>19</b>
INSERT COIN	14	9	1	4	53	51	<b>19</b>
LEYA	14	7	2	5	48	42	<b>16</b>
KE OXTIAS!!!	14	6	2	6	45	38	<b>14</b>
KOM. ALPARGAT	14	6	1	7	75	43	<b>13</b>
SAUKELU SCRE.	14	5	2	7	36	38	<b>12</b>
SERENGETI HC	14	4	2	8	42	60	<b>10</b>
BUKANAK	14	4	1	9	51	76	<b>9</b>
ALAI GOZOKIAK	14	3	1	10	38	83	<b>7</b>
BALON ROJO	14	2	2	10	25	63	<b>6</b>
MAKAI	14	2	0	12	33	77	<b>4</b>
REX 23	13	2	0	11	30	78	<b>4</b>
ROTOR BOLBO	14	1	2	11	25	80	<b>4</b>

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
TXANTXIKU KIR.	14	13	0	1	10	30	<b>26</b>
IRATI STS	14	10	2	2	69	31	<b>22</b>
NARANJA MEC.	14	10	2	2	90	45	<b>22</b>
KKJAURI	14	10	2	2	71	40	<b>22</b>
GARAJE OSCAR	14	9	2	3	58	34	<b>20</b>
AURRERA BOLIE	14	9	0	5	52	37	<b>18</b>
LOS HEREDIA	14	8	1	5	33	47	<b>17</b>
KOKA JUNIORS	14	6	3	5	45	45	<b>15</b>
ZOTZ	14	6	2	6	53	49	<b>14</b>
DKB	14	6	2	6	49	59	<b>14</b>
DIEGO ANTONIO	14	5	4	5	46	60	<b>14</b>
AT CELAYA	13	6	1	6	41	47	<b>13</b>
POTOSORRI	13	5	1	7	39	83	<b>11</b>
LAUTERBRUNNEN	14	1	4	9	22	43	<b>5</b>
BORROCK&ROLL	14	2	2	10	20	30	<b>5</b>
ATERPE KAFETE.	14	1	1	12	20	55	<b>3</b>
PUB ARROGOI	14	1	0	13	7	32	<b>2</b>
ETXE MOBEL	14	0	1	13	29	87	<b>1</b>

## Emaitzak

### A Taldea

Bukanak 5 - Makai 3  
Lontxo Taberna 4 - Ke Oxtias!!! 5  
Saukelu Scream 8 - Rex 23 0  
Orlando Piratas 7 - Insert Coin 3  
Rotor de Bolbogrado 0 - Leya 1  
Balon Rojo 0 - Pepelus 1  
Xhasss Ugarte 5 - Serengeti HC 3  
Aldibi 7 - Komando Alpargat 6  
Alai Gozokiak 3 - AC Surkos 17

### B Taldea

Borroak & Roll - Pub Arrogoi  
DKB 2 - Naranja Mecanica 9  
Aurrera Bolie 3 - Etxe Mobil 1  
Garaje Oscar 1 - Los Heredias 0  
KKJauri 11 - Potosorri 3  
Aterpe Kafetegia 0 - Irati STS 1  
Lauterbrunnen 0 - Zotz 1  
AT Celaya 8 - Diego Antonio 4  
Txantxiku Kirolak 5 - Koka Jun. 3

### D Taldea

Construcciones 3 - Eusko Label 1  
Potroak 7 - EPEH 3  
Decadencia 1 - Fraguel Gol 7  
Sokoakoak 2 - Dribling 2  
Kamasutra 1 - Jako al Rey 0  
Betraye 5 - Aita Menni 2010 3  
Totem 4 - Bar Nuevo 5  
Branka Taberna 6 - You Know 6

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	Guzt.
YOU KNOW	13	12	1	0	66	27	<b>25</b>
POTROAK	13	9	2	2	67	40	<b>20</b>
DRIBLING	13	8	3	2	64	42	<b>19</b>
JOTAKABAU	13	9	1	3	36	29	<b>19</b>
AITA MENNI 2010	13	8	1	4	52	41	<b>17</b>
EPEH	13	6	4	3	49	53	<b>16</b>
BRANKA TABERNA	13	5	5	3	62	45	<b>15</b>
TOTEM	14	7	1	6	53	39	<b>15</b>
FRAGUEL GOL	13	5	3	5	48	42	<b>13</b>
SOKOAKOAK	13	6	1	6	41	50	<b>13</b>
KAMASUTRA	13	5	2	6	54	38	<b>12</b>
BETRAYER	13	5	2	6	49	49	<b>12</b>
BAR NUEVO	13	5	2	6	46	49	<b>12</b>
DECADENCIA	13	2	3	8	24	33	<b>7</b>
JAKO AL REY	14	2	3	9	38	49	<b>7</b>
CONS. LUSO	14	1	0	13	23	78	<b>2</b>
EUSKO LABEL	13	0	0	13	26	94	<b>0</b>

**ARRASATE**  **KIROLAK**  
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON



## Hurrengo partidak

### 15. jardunaldia

#### Otsailak 20, larunbata Zaldibar

9:50 Bukanak - AC Surkos  
11:00 Aita Menni - Sokoakoak  
12:00 KKJauri - aurrera Bolie  
13:00 Xhasss - Kom. Alpargat  
14:00 Rex 23 - Makai  
15:00 Branka Tab. - Nuevo tab.  
16:00 Irati STS - Garaje Oscar  
17:00 Dribling - Betraye  
18:00 Lontxo Taberna - Leya  
19:00 DKB - Potosorri

### Iturripe a

12:00 Ke Oxtias!!! - Aldibi  
13:00 Kamasut. - Decadencia  
14 :00 Txantxiku Kir. - Zotz  
15:00 Cons. Luso - You Know  
16:00 Alai Gozoki. - Serengeti

### Otsailak 21, igandea

#### Zaldibar

9:50 Fraguel Gol - Eusko Label  
11:00 Pepelus - Orlando Pir.  
12:00 Epeh - Jotakabau  
13:00 Naranja Mec. - Celaya

### Atsedena:

**a taldea:** Saukelu, Insert Coin  
**b taldea:** Koka Juniors, Etxe Mobil, Diego Antonio  
**d taldea:** Totem, Potroak



## ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotritzitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

# Fagor, JMA eta Arrasate Kirolak biraka

Dorletako Ama Txirrindulari eskolako hogeita sei txirrindulariek lora eskiantza egin zioten joan den larunbatean Dorletako Amari. Izan ere, larunbatean egin zuten Eskolako hiru taldeen aurkezpena komunikabideen aurrean, Gure Ametsa jatetxean.

Aurten ere hiru etxek babesten dute gazte, haur eta infantil mailako txirrindulari taldeak. Gazte mailan, Fagor; haur mailan, JMA eta infan-tiletan, berriz, Arrasate Kirolak.

Gazte mailan Fagor izango da taldea. Sei lagun arituko dira hemen: Txema Galan, Gorka Almaraz, Iker Bernal, Aitor Odriozola, Imanol Solis eta Josu Beitia. Zuzendariak, berriz, Aitor Garro eta Lorenzo Bernal izango dira. Gazte mailako taldeak iaz denboraldi ona egin zuten. Hemengo



Dorletako Ama Txirrindulari Eskola, Gure Ametsa jatetxean.

Iau txirrindularik afizionatuetara igaroko dira aurten, Born Jay eta Ulma-Cegasa taldeetara.

Bigarren urteko haur mailan, zortzi txirrindularik osatuko dute JMA taldea: Aitor Pavon, Aitor Aginalde, Andoni Leibar, Jabier Martinez, Eneko Perez, Aitor Frutos, Iker Galarraga eta Danel Lazkano. Taldea zuzentzen, Jabier

Lazkano eta Rafa Antia arituko dira.

Lehen urteko haur mailako taldea ere JMAk babestuko du. Hemen, ordea, sei lagun arituko dira: Endika Mertin, Paul Mera, Iñaki Juldain, Aitor Elorza, Ametz Elustondo eta Raul Blazquez. Angel Blazquez izango da zuzendaria.

Azkenik, eta infantil mailako Arrasate Kirolak taldea-

ri dagokionez, sei txirrindulari arituko dira: Mikel Arana, Markel Lasaga, Oxel Kabi-keta, Eddy Perez, Marcos Fernandez eta Jon Lete. Zuzendari lanetan Asier Bengoa arituko da.

Joan den larunbatean lora eskaintzaren ostean, Gure Ametsa jatetxera abiatu ziren guztiak.

## FUTBOLA A zelako jipoi!



Nazional mailako liga jokatzeko ari den nesken futbol taldeak jipoi

ederra jaso zuen joan den asteburuan. 2 eta 9 galdu zuten Eibartarrak taldearen aurka. Esti Loitiren nesken futbol taldeak burua altxatu gabe segitzen du. Orain arte ez dute partidarik irabazterik lortu. Aste honetan Sondikaren aurka jokatu dute.

## Garaipen borrokatua

Ohorezko ligako gazte mailakoek sekulako partida jokatu zuten joan den larunbatean Zumaiakoren aurka. 8 eta 7 garaitu zituzten David Zaitegiren mutilek zumaiarrak.


Dean den, 8 eta 4 irabazten ere joan ziren eta azkenean 8 eta 7rekin amaitu zen norgehiagoka. Aste honetan Urolaren aurka jokatu dute Urretxun.

## Preferentekoak larri

Jabier Letonaren Mondra taldeak ez dirudi emaitza onak lortzen dakienik. Joan den asteburuan ere galdu egin zuen, oraingoan Oriokoren aurka. Lehen 45 minutuak nahiko berdinduta ziren arren, bigarren zatian oriotarrek partidako gol bakarra lortu zuten eta mondragoetarrek ezin izan zuten berdindu. Gauzak horrela, 24 puntu baino ez dute Mondrakoek. Ez da, bada, lekuri onena etxe koentzat. Igandean Real Union taldea izango dute Atxabalpen, 16:30etan.

Aurreko itzulian 0 eta 1 irabazi zuten mondragoetarrek. Ea bada oraingoan ere, horrela izaten den.

## SASKIBALOA Bigarren aldia




Joan den asteburuan jai izan zuten Arrasate Saskibaloi taldekoek

inauteriak zirela eta. Larunbatean, ordea, senior mailakoek bigarren aldiko norgehiagoeki ekingo diete. Aurrez aurre Bergarako taldea izango dute. Bi taldeak berdinduta daude, beraz leihandia izango da.

Aspaldiko partez, Musakolan arituko dira, Karate txapelketa dela eta. Ordua 19:15ak. Haur mailakoek San

Antolinen jokatu dute, 17:00etan eta juniorrak, berriz, 11:30etan.

## ESKUBALOA Azkenak, beti legez



Senior mailako Arrasate Eskubaloi taldeak ere burua altxatu gabe segitzen du. Zortzi lagun


abiatu ziren EHuren aurka jokatzera joan den larunbatean. Norghegiagoka EHUK 36 eta Arrasatek 15 amaitu zen. Gauzak horrela, azken tokiaren jabe izaten segitzen dute arrasatearrek. Badirudi ez dutela hori uzteko asmorik. Zortzerik behintzat ez dute. Larunbatean Musakolan jokatu dute 17:00etan, Gasteizko Arabacan Gure taldearen aurka.

# Euskarak ez ditu denak bere alde

## 1998ko euskararen erabilera publizitatean

Erabilerak **behera** egin du, postontzian jasotako iragarki kopuruaren arabera


### HIZKUNTZAREN ERABILERA



### TXALOAK Arrasateko merkataritza etxeei.

Euskaraz egiteko ohitura handiena dutenak dira.


### EUSKARAREN ERABILERA



POSTONTZIETAN JASO DIREN IRAGARKI GUZTIENTATIK, HAU DA SUPERMERKATUEI DAGOKIEN PORTZENTAIA

### TXISTUAK Supermerkatuei.

Jasotako iragarki guztien laurdena haiek bidalitakoa da, eta ia dena gaztelaniaz egin dute.





**ALTZARIAK**

**UGARTE**

**APAINKETA**

- Leiho termoakustikoak
- Ateak

**AROSZTEGIA**

- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1  
 (Gasolindegia-aren parean)  
**BERGARA**  
 Telefonoa eta Faxe: 943 76 54 91

# Born Jay txirrindulari taldea

Born Jay afizionatueta txirrindulari taldeak hamasei txirrindulari izango ditu aurtengo denboraldian. Iazko zortzi lagun ari tuko dira berriz ere 23 urtez azpiko eta elite mailako taldean.

Born Jay txirrindulari taldeak martxoaren 6an ekingo dio aurtengo denboraldiari, Santanderren. Gero Atarrabian eta otsailaren 19an ingurueta lehenengo, Gorlan.



Zortzi fitxaje egin ditu Born Jayk. **Jordi Valbuena** da kataluniar bakarra. 21 urte ditu eta Villa de Capms (Girona) herrikoa da. Jordi ez zen argazkiri iritsi, baina beste guztiak bai.



**Iñaki Llodio**  
**Arrasatearra**  
**19 urte**

Iaz Fagor taldean aritu zen eta nahiko denboraldi ona burutu zuen. Aurten estreinatuko da afizionatu mailan.



**Xabier Beitia**  
**Gatzagarra**  
**19 urte**

Fagor taldean aritu zen iaz. Llodiorekin batera lehen urtea egingo du afizionatu mailan. Biek dute asko ikasteko.



**Josu Mendizabal**  
**Tolosarra**  
**23 urtez azpikoa**

Orain arte Tradipa taldean aritu da. Bere hirugarren denboraldia izango da afizionatu mailan.




**Aitor Larrea**  
**Antzuolarra**  
**23 urte**

Azken orduko fitxajea dugu antzuolarra. Lehen ere aritu zen Born Jay taldean, baina ikasketak zirela eta, laga egin zuen txirrindularitza.



**Jose Angel Blazquez**  
**Irundarra**  
**19 urte**

Aurten igo da afizionatuetara. Iaz, Bidart taldean aritu zen gazte mailan. Igoeretan ondo baino hobeto aritzen da irundar gazte hau.



**Jon Garraus**  
**Irundarra**  
**21 urte**

Iaz Iberdrola taldean aritu zen. Gazte hau ere igotzaile ona da.



**Angel Vazquez**  
**Lazkaoarra**  
**19 urte**

Ordiziako txirrindulari taldean aritu zen iaz. Taldeko gazteena izanda, igoeretan oso azkarra da.

Iazko txirrindulariei dago-gogonez, honako hauek segitzen dute taldean:

**Oskar Askasibar**, 25, elgetarra. Talde buru izateko txirrindulari aproposa.

**Antonio Urmeneta**, 20, errenteriarra. Pistan ondo ari

da. Gipuzkoako txapelketa hainbat aldiz irabazi du.

**Jabier Migel Benedit**, 23, andoaindarra. Auto istripua izan du eta gerrian mina hartuta dabil.

**Jokin Lizeaga**, 20, urnietarra. Iaz Elgoibarren bosgarren izan zen.

**Ramon Jabier Garcia**, 20, elgoibartarra. Iaz denboraldi bikaina burutu zuen. Ondo aritzen da lauan.

**Jon del Rio**, 21, irundarra. Esprinterra da. Iaz Bergarako lasterketa irabazi zuen, bere 13. garaipena.

**Ruben Gonzalez**, 20,

legorretarra. Erlojuaren aurka ondo aritzen da. Indarra du eta bizikleta gainean itxura polita dauka.

**David Sojo**, 21, Okendoarra (Araba). Ihesaldi guztietan ibiltzen da, borrokatzaile amorratua da. Hirugarren urtea izango du afizionatuetan.

## JABIER ETXAGIBEL (ZINE KUDEATZAILEA)

# “Zinemak iritzi askotar

Javier Etxagibel Murua arrasatearra da sortzez, izatez eta bihotzez, nahiz eta orain Gasteizen bizi. 39 urte dauzka eta ekonomilaria da. Finantza lanetan hainbat urtez ibili eta gero, bost urtetik hona, Gasteizko VESA enpresako gerentea da. Enpresa hau tokiak alokatzeaz gain, 11 zine aretoren jabe da, Guridi eta Samaniego zinemetan.

— Nola hasi zinen zinemaren mundu honetan lanean?

— Enpresan lanean ibili eta gero, aldatu nahi nuen. Zerbitzuekin lotutako zerbeitetan lan egin nahi nuen eta ikuskitzuna betidanik gustatu zaizkidanez, ba hortxe hasi nintzen. Gainera, Gasteizen bizi-

tzeak erraztu egin zidan nire nahia lortzea, hemen Arrasaten baino ikuskizun aukera zabalagoa baitago.

— Egia da zinemak gainbeheran daudela?

— Ez. 80. hamarkadan kolokan ibili ziren, bideoaren eta telebista kate pribatuaren agerpenaren ondorioz. Baina, 90. hamarkadatik aurrera berriz ere igoera nabarmena ezagutu du zinemak. Kontua da zinemak bestelako irabaziak ere badakartzala: film baten kontura elastikoak ateratzen dira, konpaktoak, panpinak, jolasak...  
Negozioa zine-

aren atzetik dago. Horrek, zinea oso garrantzitsu bilakatu du. Gainera, film batek zinetik pasatzen ez den arte, ez du bestelako transze-

dentziarik lortzen.

Egia esan, zine areto ugari egiten ari dira orain, bizkorregi eta larregi agian.

— Eman dituzuen film guztietatik ba duzu bat edo beste bereziki gogoan?

— “El Día de la Bestia” oroitzen dut bereziki. Izan ere, film hori jendaurrean lehenengo aldiz Guridi zinemetan eman genuen. Hantxe izan nuen Alex de la Iglesia alban urduri-urduri filma eman bitartean. Film horren arrakastaren ara-



**Jendeari familia osoarentzat egokiak diren filmak gustastzen zaizkio gehien: Jurasik Park, Titanic...**

# “Nahiko jendea batzen du”

bera egingo baitzuten gero “Perdita Durango”. Nik, Mari-txu Kajoi eguneko eskapularioa eman nion eta hari eusten egon zen. Azkenean, ba begira...

## — Zein motatako filmak ikusten ditu gehien jendeak?

— Familia ososarentzat egokiak direnak. “Jurassic Park” eta “Titanic” adibidez. “Titanic” filmarena gehiegi izan zen. 8 urtetik 80 urte bitarteko jende gehienari gustatu zitzaion eta Gasteizen, kasu, 100.000 inguru pertsonak ikusi zuten.

Bigarren lekuan, film erromantikoak daude. Izan ere, zinemara emakumeak gizonetzakoak baino gehiago joaten dira eta nahiago dituzte mota honetakoak. Ikusleen %56 emakumezkoak dira.

Hirugarren lekuan komediak leudeke. Eta azkenik, abentura filmak.

## — Jendearen gustuak aldatu egin dira?

— Lehen jendea aktoreen edo zuzendariaren izenaren arabera joaten zen zinera. Orain, aldiz, istorioa hartzen da kontuan. Jendeak nahiago ditu bere buruarekin identifikatzen diren filmak: “Full Monty”, “Airbag”...

Honetaz gain, orain, film surrealista arrakasta handia izaten ari dira, “Torrente”, “P. Tinto” eta antzekoak. Film freskoak dira, berri puntua darie eta gidoiak oso onak izaten dituzte.

Zineman jendearen gustuak oso azkar aldatzen dira.

## — Nola aukeratzeko da film bat?

— Filmak ikustera gonbidatzen gaituzte multinazionalak, produktoreek eta horrelakoek. Han, laupabost film batera ikusten ditugu eta horietatik jendea gustatuko zaiona

zein den “asmatzen” ibili behar gara.

## — Nolako da zinemara doan pertsona mota?

— 23 urteko emakumezkoa. Gehienetan bikotearekin edo bere lagunekin joaten dena. Emakumeak dira gainera, zein film ikusi aukeratzeko dutenak, baina beti ere, mutilaren gustua oso kontuan hartuz.

## — Jendeak ohitura jakin batzuk ditu zinera joateko orduan?

— Bai. Eta ez dakit zergatik. Zinera joatea erritu bat da. Orain, jendeak alde aurretik har dezake sarrera, baina begira, joan den igandean adibidez, sekulako hotza egiten zuen eta hala eta guztiz ere, jendea ilaran zegoen itxaroten. Ez dakizu zergatik. Agian, zinema taberna bat bezalakoa da, bizitza soziala egiteko

aukera paregabea ematen du. Krispetak ere hortxe daude. Jende gehiena kexu da ateratzen duten zaratarengatik, baina, gero ia gehienek jaten dituzte.

## — Publizitate subliminari buruz...

— Ez dago horrelakorik. Ez dago horren beharrik. Begira, nahikoa da film ezagun batean tabako marka jakin bat ateratzea, tabako marka horrek sekulako salmentak izateko.

Zinemak, iritzi askotariko jendea biltzen du.

## — Anekdotaren bat...

— Badago butakan hurrengo eguna arte lo gelditu izan denik guk ikusteke. Ezagutzen dut “Los Puentes de Madison” filma 16 bider ikusi duenik eta 22 bider “Titanic”; sexu harremanak komunitetan... Anekdotak ugari ikusten da



# GRONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak

- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76



Hainbat begirale eta begirale ohi, iaz ateratako argazkian.

## Aisialdiko zuzendari ikastaroa Txatxilipurdik antolatuta

Aisialdiko zuzendari ikastaroa lehen aldiz antolatuko du Txatxilipurdi elkarteak. Aurrez begirale ikastaroak ere antolatu izan ditu, duela 10 urte hasi baitzen horiek antolatzeko.

Ikastaroa Urtxintxa aisialdiko hezitzaileen eskolak emango du. 21 urtetik gorako gazteentzat zuzenduta dago ikastaroa, eta horretaz gain, begirale titulua izatea ere beharrezkoa da. 100 orduko iraupena izango du, eta larunbatetan elkartuko dira ikastaroan izena eman duten

guztiak. Saioak goizez eta arratsaldez izango dira. Dena den, ikastaroa bukatu ostean praktikak egin beharko dituzte aisialdiko zuzendari ikastaroa jasotako guztiek. Praktikak 120 ordu iraungo du, eta horiek egin ostean eskuratu dute begirale zuzendari titulua.

### IKUSPEGI OROKORRA

Ikastaro hauen bidez, aisialdien ikuspegi orokorra erakutsi nahi zaie ikasle guztiei. Iñaki Saez AEDko eragileak adierazi bezala, "udaleku ire-

kiak adibide bezala hartuz, begiralearen ardura bere taldea aurrera ateratzea, bere taldearekin ondo pasatzea eta dagokion programaketa aurrera ateratzea izango litzateke. Aldiz, zuzendariaren ardura udalekuak orokorrean kontuan hartu eta arlo ezberdinez arduratzea litzateke: begiraleen koordinazio, planifikazioa, programaketak, egunez egunez ekintzen osteko ebaluazioa..."

### LAU ESPARRU

Ikastaroa lau esparru nagusi-

tan banatuko da. Esparru soziopolitikoaren bidez diru laguntzak lortzeko jarraitu beharreko prozedura eta horren inguruko legedia ikasteko aukera izango da. Esparru psikopedagogikoaren bidez, psikologia eta komunikazioaren zertzeladei buruzko jakingarriak landuko dituzte.

Esparru pedagogikoan heziketa egitasmoa, planifikazioa eta ebaluazioa jorratuko dira, eta esparru teknikoaren bidez administrazioaren eta komunikazioaren gaiei buruzko jakintzak jasoko dituzte.

**IRATI TABERNA**

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

*Independentzia eta  
askatasuna!*












# Aurkitu duzu akatsik?

Zure telefonoa agertu ez bada edo akatsik aurkitu baduzu, **dei egin lehenbailehen 943 77 08 15 telefonora edo zuzenean ARKOra etorri** (Otalora Lizentziatua, 31).

Laster akatsen zuzenketa orri bat argitaratuko dugu.  
Mila esker.



Leintz bailarako profesional eta zerbitzu guztiak zure esku.

## Gida 99

### Zure telefonoaren lagunik onena!!





umezaintza  
HAUR-ESKOLA



# HEZIBIDEKO Ikastolen Apostua Batxilergo eta Heziketa Zikloetan ere bai!



**HEZIBIDE**  
Hezkuntza Taldea

**Zatoz Informatzera!** 

Biteri Etorbidea, 15 behea  
Tel: 943 79 88 75  
20500 ARRASATE

